

Turismo bulegoak kalitatearen Q egiaztagiria lortu du



ZORIONAQ!

Zorionak! Ezin daiteke beste modu batera hasi informazio hau. Zeraingo turismo bulegoak turismoaren kalitateko Q egiaztagiria jaso du. Euskal Autonomia Erkidego guztian, lau zentruk bakarrik lortu dute aurten turismoaren kalitateko Q egiaztagiria, eta horietako bat izan da Zeraingo turismo bulegoa. Horregatik zorionak!

Q egiaztagiria turismoaren zerbitzuan kalitatearen errekonozimendua da. Eta horregatik, Mandio goikoan egiten duten lana oso ona dela errekonozitzeaz gain, prestigio handia ematen dio, bai turismo bulegoari berari,

baina baita Zerain herriari ere. Lau urtez aritu dira, Q egiaztagiria lortzeko beharrezko diren baldintza zorrotz guztiak betetzen; eta azkenean, urrian azken ikuskaritza pasa ondoren, turismo bulegoari eman diote Q egiaztagiria.

Santa Lutzi egunez, Bilbon egindako turismoaren galan, Zerainen izenean, Jose Manuel alkateak jaso zuen egiaztagiria Juanjose Ibarretxe lehendakariaren eskutik. ZorionaQ turismo bulegoko guztiei eta baita zeraingar guztiei ere!

Herri-bileran jende ugari izan zen

Joan den abenduaren 1en, herri-bileran izan zen Zeraingo Udaletxeko garbaran. Guztira 80 bat herritar elkartu ziren, herriko hainbat gaiz hitz egiteko eta informatzeko.

Bileraren hasieran, udal-talde berriak, legealdia hasi zenetik hona egin diren gauzen berri eman zuen; eta horrekin batera, aurrera begira esku artean dituen proiektu eta erronken berri ere eman zuen. Ondoren, herritarrek hitz egindakoei buruz edo beste gai batzuek galdetzeko eta hitz egiteko aukera eduki zuten. Udala oso gustura geratu zen jendearen parte-hartzearekin eta han esandakoak jaso zituen.

Udal-taldearen ondoren, herriko guraso-elkarteak ekainean Zerainen egingo den Gipuzkoako eskola txikien jaiari buruz hitz egin zuen. Antolatzeko lan handia dago, eta



Herri-bileran amaieran herritarren argazkia atera zen. E. MENDIZABAL

guztien laguntza beharrezkoa izango da. Gurasoek asmoak eta orain arte egindako lana azaldu zuten eta ondoren, herritarrei laguntzeko eskatu zie-

ten. Bilera amaituta, eguerdi aurretik, denek elkarrekin argazki bikaina atera eta aho-goxagarri batzuk hartuta bukatu zen herri-giroko goiza.

Zeraingo eta Lazkaoko koruen kontzertua eta elkarlana



Abenduaren 16an, Zeraingo Uharka abesbatzak eta Lazkaoko Kantakak kontzertua eman zuten Zeraingo elizan. Lazkaokoek 7 kantu abestu zituzten eta Zeraingoek 4. Kantaldi ederra izan zen eta ondoren, elkarrekin hamaketako ederra egin zuten. Bide polita ireki dute etorkizuneko lankidetzarako ere.



Euskararen eguna herri-eskolan



Abenduaren 3an, Euskararen eguna izan zen. Euskararen eguna ospatzeko poemak eta esaldiak asmatu eta idatzi genituen, ondoren orriak apaindu eta Kultur Etxeko atarian jarri genituen ikusgai.

Arratsaldean BARBANTXOren DVDa ikusi genuen.

Josu, Aroa eta Maialen



URTEBETETZEA

Orain bi urte beteko ditu abenduaren 19an. Esku artean duzuen hau 24 garren alea da.

Bi urtez hilero hilero zuten etxeetan jaso duzue aldizkaritxo xume hau. Lan handia ematen du, baina merezi duela uste dugu. Horregatik, bigarren urtebetetze honetan, poztu ez-zik aurrera jarraitzeko gogoia ere pizten zaigu. Zorionak guztioi!

Luarra

Inoiz entzun gabeko hitza dut gaurkoa: **luarra**. Akordatu behintzat ez naiz akordatzen, inoiz entzuna. Hitzaz aparte hiru hitzarte eskaini ditu Elenak, **luar** hori zer den hobeto azaltzeko: LUAR-PILLA, LU(A)R-TOKIE eta LUARRA E(G)IN.

Zer da **luarra egitea**? Espelikazio zabalara erantsi dio Elenak hitzarte horri. Bere esanean "baserrietan, etxe aurrean, otea txikituta eta ikuiluko simaurra nahastuz egiten zen luarra, gero soroetan ongarriztat erabiltzen zena. Zerainean askok komentatu didate etxean egiten zutela". Horra, beraz, **luarra egitea** zer den edo zer zen. Zer ote da, bestalde, **luar-pilla** edo **luar-tokie**? Elena dugu, berriro ere, informazio-iturri: "Gure etxean, ni gogoratzen naiz etxe aurrea "lu(a)rtokie" bezala ezagutzen zela. Orain jakin det bertan luarra egiten zela, nahiz eta nik ez ezagutu egiten". Horra, beraz, espelikazio jakingarria: Zeraingo baserrietan etxe aurrean egiten zen luarra, ikuiluko simaurrari otea nahastuz, eta luarra egiten zen lekuari **luar-tokie** edo **luar-pilla** esaten zitzaion.

Hori da Zeraindik bertatik jaso duguna. Gatozen liburueta. Zer diote hiztegiek, **luar** horretaz? Zer dio, batez ere, OEH hiztegiak? Ezer ez. Antzekoena, hau dakar: **luhar**, "lombri de tierra". Hori beste kontu bat da ordea: batetik lur, konposizioan **lu(h)**-moduan agertu ohi dena (luberrilurberri, luizi/lurbizi, lubaki/lur-ebaki, luzuriaga "tierras blancas"), eta bestetik har "gusano, lombri": hots, lurreko harra. Hiztegian inguruko hitz-sarretan bila hasi, eta honako honekin egin dut topo: **luatz**. Bere espelikazioa hau da: "el abono que se produce en el barrizal echando árgoma. Tolosa aldean jasoa da luatz hori, eta jatorri argia omen du: **lur+gorotz**. Honelatsu sortua izan liteke: **lur+gorotz - lugorotz - lugootz - luotz luatz**. Bistan da **luatz** hori ondo ezkontzen dela Zeraingo luarrarekin. Baina bi hitz dira, eta bakoitzak bere jatorria du.

Nondik ote dator Zeraingo **luar** hori? Erantzun beterik ez daukat galdara horrentzat. Bi hipotesitxo ematera mugatuko naiz, beraz.

a) **Luberrit**-tik etor daiteke **luar**. Badakigu **berri** ordez **barri** esaten dela

bizkaieraz, eta Aizkorpe honetan bizkaierazko formak sarri samar ageri direla. Demagun, beraz, **lubarri** genuela hasieran eta gero, ibiliaren poderioz, **lubarri** hura **luarri** bihurtu zela hiztunen ezpainetan. Ez litzateke hain harriztekoa eboluzio hori: ikus **eguberri** formatik **eguarri** nola sortu den Gipuzkoan, urrutirago gabe. Airean geldituko litzateke, kasu honetan, hitz-bukaerako **-i** horren galera. Aspaldiko **itzali/italz, estali/estalde** moduko bikoteen eragina izan liteke, zerbaiten bila hasita, espelikaziorik erakargarriena. Baina ez da batere gauza segurua.

b) **Lur**-etik etor liteke, zuzenean edo behinolako atzizki baten bidez, **luar** hori. Ikus dezagun nola. Badakigu **-ar** bukaera oso zabaldua dagoela baserri-giroko izendapenetan. Batez ere fitonimoetan, baina ez landare-hitzetan bakarrik: **sagar, ilar, zumar, txilar, belar, lizar, otar** (iparraldeko otatza), **garagar, galar** (galartza, etc.), **zuhar, sustar, lahar, adar** eta **abar**, besteak beste. Ikustekoa litzateke, **bular, bizkar, ibar** modukoak ere diren sail horretan sartzekoak. Gaur egun ez da batere erraza, forma zahar horien oinarrian **-ar** elementua ote zegoen jakitea. Esangura jakineko **-ar** morfema ote zegoen mehe/mehar, zume/zumar, ote/otar, gari edo gal/galar eta bel(tz?)/belar bikoteetan? Horrela esplika ote litezke, bide batez, bizkai/bizkar, ibai/ibar moduko bikoteak? Hala balitz, serie bikoitz horretan sartuko ote litzateke **lu(r)/ luar** delakoa ere? Hipotesi hau ere ez da batere segurua: aurreko hipotesia ahula baldin bada, eta hala da, are ahulagoa da oraingo hau. Saiatu gabe ez dago ordea aurrera egiterik, eta horra hor bi espelikazio-saiotxo, bakar-raren prezioan.

Beste argibide hau ere eman dit Elenak, berak egindako kontsulten haritik. "Kontxitak esan zidanez, Aztirin KORTALOEIE ere esaten omen zitzaion. Kasu honetan, artalastoa baserri inguruan lur gainean zabaldu eta ondoren zapaldu egiten omen zuten, dena ondo nahasteko". Hitz berria da niretzat, **kortalohi** hori

ere. Hiztegiara joan naiz, eta oraingoan bai: hantxe dator jasoa. Horra zer dioen OEHk: "basura para estiercol" Gipuzkoan erabiltzen omen da, bai gipuzkeraz eta bai bertako bizkaieraz. Adibideetako bat hau du: "kortaloixa eitteko otia". Zuzen dabil hortaz Kontxita, bere azalpen horrekin. Espelikazio errazekoa dirudi hitzak: **korta+lohi+a**. Hots, "el barro o lodo del cobertizo".

Gaur egun **luar** hitza ez da, itxuraz, Zerainean ia erabiltzen. Horrexegatik sartu du Elenak, jakina, galtzen ari diren hitzen sailean: ez kale-etxeetan eta ez Zeraingo baserri gehienetan erabiltzen da lehen bezain maiz. Gazteek, seguruenik, zer den ez dakite. Galtzen ari da. Zergatik? Betikora gatoz: hitzak ez dira galtzen itsusiak direlako, luzeegiak direlako, esaten zailak direlako edo horrelako zer dakit nik. Ez, gizarte-bizitza aldatuz doa etengabe, eta hiztun arrunten eguneroko jardunetik kanpora gelditzen diren gauzak, prozesuak eta kontzeptuak galduz doaz. Kontzeptua galtzarekin batera, jakina, hura adierazteko erabiltzen zen hitza ere bai. Gatozen **luarrera**. Baserri gehienetan ganadua atera egin da etxeko ikuilutik. Saldu egin da, edota aparteko etxordekoak egin dira ganadua gordetzeko. Etxordeko handi horietan, gainera, bestelako sistemak asmatu dira ganadua-oren gorotz-pixak jestionatzeko. Batean zein bestean, etxeko ikuilua hustu egin da eta jendea ez dago otea mozten hasteko. Horrela, jakina, zail da **luarrik** egiten. Eta sortzen edo bana-tzen ez den produktuak, erabilera sozialik ez duenak, zertarako behar du izenik? **Luar** hitza, hortaz, galtzen ari da.

Kasu honek badu, halere, gogoeta-gai polita. **Luarra** galtzen ari den une berean, **compost** edo **konposta** egiteari ekin diogu. Kale-giroan hezitakook, ekologiaren abc-a liburu bidez bereganatu berri dugunok, abono-ongarria oso gauza ona dela jakin dugu. Mediterraneo berria deskubritzen ari gara. Baserrietako lehengo gauza bera egiten dugu funtsean, baina (ustez), dotoreago eta modernoago: simaur-usainik gabe, zikin-mantxarrik gabe eta, gainera, ingelesez. Aldekoxe adelantua.

Mikel Zalvide



Xagu-txoko



Babesetik

| AZAROA | ast | ast | ast | ost | ost | lar | Iga |
|----------------|------------------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|-----------|
| | | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| Euria (l/m) | GUZTIRA: 49,25l. | | | 0 | 0 | 0 | 0 |
| C° altuena | ALTUENA: 16° | | | 13 | 13 | 11 | 12 |
| C° baxuena | BAXUENA: -6° | | | 12 | 6 | 9 | 10 |
| | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 1 2Euria (l/m) | 0 | 0 | 0 | 0 | 0,5 | 0 | 0 |
| C° altuena | 11 | 13 | 12 | 15 | 12 | 13 | 12 |
| C° baxuena | 10 | 10 | 7 | 4 | 7 | 5 | 2 |
| | 12 | 13 | 14 | 15 | 16 | 17 | 18 |
| Euria (l/m) | 0 | 0,5 | 14 | 6 | 0 | 0 | 0 |
| C° altuena | 11 | 13 | 12 | 12 | 9 | 5 | 7 |
| C° baxuena | 2 | 7 | 8 | 6 | -4,5 | -6 | -5 |
| | 19 | 20 | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| Euria (l/m) | 0,25 | 11,5 | 0 | 8 | 3 | 1,5 | 3 |
| C° altuena | 12 | 16 | 15 | 15 | 13 | 13 | 9 |
| C° baxuena | 6 | 10 | 6 | 10 | 6 | 6 | 3 |
| | 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | | |
| Euria (l/m) | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 | | |
| C° altuena | 10 | 10 | 9 | 11 | 11 | | |
| C° baxuena | 6 | 7 | 5 | 6 | 3 | | |

Hotz eta lehor

Aspaldiko urteetako azarorik lehorrena izan dugu aurtengoa. Azkeneko 8 urteetan, aurtengoa izan da azaro lehorrena, baina diferentzi handiz gainera: 50 litro eskas izan ditugu, iazkoaren erdia baino gutxiago. Baina, pentsa non geratzen diren, 2005eko azaroan egin zituen 312 litroak. Euri gutxi, baina hotz ederrak bai, hilaren erdi aldean: zeropetik 6 gradura ere jaitsi baitzen tenperatura.



OLENTZERO SARIA

Abenduaren 16an, Olentzero-saria jokatu zen Zeraingo bolatokian. Luis Aizpeolea herritarrak irabazi zuen 37

birla botata. Bigarren Javier Zabaleta izan zen 36rekin eta hirugarren Jose Angel Belaunzaran 35ekin.



IV. gazte barrikotea

Badatoz GABONAK!

Konturatzera goanean dira aurtengo Eguberri jaiak ere. Eta egun hauetan urteroko ohitura ditugunak, aurtengo ere egingo ditugu. Abenduaren 24an, etxez etxe kantuan ibiliko dira herriko bi talde. Herriko eskolako haurrak eta gurasoak goizetik bakarrik ibiliko dira, eta herriko beste talde bat egun guztian zehar ibiliko da. Iluntzean, berriz, Olentzeroa jaitziko da plazara eta Uharka abesbatzak kantatuko dio. Olentzerok oparitxoak eta gatzaina erreak ekarriko ditu.



Ostatu itxita

Datorren abenduaren 29tik urtarrilaren 14a arte, Zeraingo Ostatu jatetxe eta taberna itxita egongo da oporrak direla-eta. Merezitako deskantsua hartuko dute ostatukoek.